

BERMEOKO
TOPONIMIA

© obrarena: Iruneko Alrika eta Bitoren Uriarte
© edizio honena: Bermeoko Udala

Babeslea: **bbk**

2007ko apirila

ISBN: 978-84-606-4233-6
Lege gordailua: BI-1168-07

IRUNE ALLIKA / BITOR URIARTE



BERMEOKO TOPONIMIA

 **BERMEOKO**
UDALA Euskera
Saila



HITZAURREA

Zortzi urte luze joan dira Bermeoko toponimia ikertzeko udalak Iruneko Allikari eta Bitor Uriarteri bekea emon eutsenetik. Luzeak bai, baina alperrekoak ez dira izan, ez horixe; urte oparo-oparoak izan dira, lan eta lan ibili dira gure arbasoek leku-izenen bidez itxi deus-kuezan aztarnei jarraituz, historia biziaren hariari jarraituz.

Garrantzi handiko lana da liburu honetan aurkezten doguna, gure iragana, oraina eta etorkizuna hari berean lotuta agertzen jakuzalako. Eta arrastoari segiduta, nondik gatozan ikusteko eta ikasteko aukerea emoten deuskulako, gure historiaren datu asko emoten dauz eta, holan, zer izan garan hobeto jakiteko aukerea be badaukagu.

Ikerlan honen helburuetako bat izan da toponimoak berreskuratzea, erabilten ez dana galdu egiten dalako eta zenbait leku-izene-gaz horixe pasau jaku, erabili ez diranak galdu edo ahaztu egin dirala. Ariketa polita izan da, beraz, Irunek eta Bitorrek egin daben bilketa lana, ahanzturaren kontrako botika ederra.

Beste helburu bat da toponimoak normalizatzea eta egungo euskerearen arau eta moldeetara ekartea. Eta liburu honetan batu diranak izango dira, hain zuzen be, ofizialak eta normalizatuko diranak.

Leku-izenek erakutsi deuskue euskereak zer-nolako bidea egin dauen gure herrian, berbak nondik nora ibili dira, horreek berbek erakutsi deuskue bermeotarren bizimodua zelakoa izan dan, leku-izenak altxor biziak diralako.

Azken baten, atsegin handiz aurkezten dogun liburu honetan, bermeotarren historiaren, hizkuntzearen eta bizimoduaren erretratua egin deuskue egileek, gure herria eta hizkuntzea hobeto ezagutzeko eta maitatzeko laguntzea emon deuskue.

Eskerrak emon beharrean nago herriagazko horrenbesteko maitasuna erakutsi deuskuen Iruneri eta Bitorri, egin daben azterlan sakonagaitik. Izan daitela liburua gero etorriko diran ikerketa barien oinarri eta ikerlari gazteentzat abiapuntu; Bermeo, bere historia eta hizkuntzea hobeto ezagutzen eta maitatzen ikasi daigun.

Bermeon, 2007ko zezeilean

JUAN KARLOS GOIENETXEA BEITIA
Alkatea

SARRERAKO HITZAK

Euskal Herriko beste leku batzuetako toponimia-liburuen ondoren dator Bermeokoa, baina merezi izan du itxarotea, gutxitan lortzen baita, hemen lortu den bezala, leku-izenen azterketaren hainbeste alderdi lan bakarrean biltzea, eta, ondorioz, horrenbeste irakurle desberdinentzat erabilgarri izango den liburua egitea.

Denbora luzean eginikoa da, eta hori jakinda bakarrik ulertzen da, adibidez, begiratutako dokumentazioaren zerrenda hain luze eta zehatza izatea; ez da ohikoa, halako liburuetan, hain zerrenda zehatzak aurkitzea, eta artxiiboetako ikerketa hori da, hain zuzen, liburuaren balioaren bermeetako bat.

“Bermeoko lurraldearen historia” bezalako atal aberatsa ere ez da toponimia-liburu askotan aurkituko; unibertitate-mailako irakurlea gogobeteko du (testu nagusiak bezainbeste balio du, irakurle mota horrentzat, jatorrizko dokumentaziotik oharretara ekarri duen informazioak), eta herritar arruntak ere erraz ulertuko du Bitorrek egin duen laburpena (mugen zabalkuntza erakusten duten mapen bidez, besteak beste). Fitxetako ohar batzuekin, bestalde, beste historia-liburu bat osa liteke; hiriguneko leku-izenen fitxerik dagozkien oharrek elkarren ondoren irakurtzea, adibidez, Bermeoko hirigintza-ren historia irakurtzea da.

Iruneren lana hizkuntzalariaren ikuspegitik egina da. Kasu honetan ere ez da arin-arinka eginikoaren emaitza: 166 berriemaileren informazioa ez da berehalakoan batzen eta antolatzen. Gainera, biltzea-lana baino asko gehiago egin du: toponimia-fitxen aurretik agertzen diren “Normalizaziorako irizpideak” eta “Osagai lexiko eta gramatikalen hiztegia” ataletan, Bermeoko toponimia guztiaren azterketa linguistiko osoa dago, eta azterketa hori hizkuntzalaritzako parametro zientifikoetan egina da. Badakigu makina bat buruko min eragin dietela normalizaziorako harturiko erabaki batzuek, baina garrantzikoena da datuen azterketa zintzoa dagoela erabaki guztien oinarrian (artikuluaren eta bokal paragogikoaren azterketa sakona, esaterako, beste inongo datuekin egin gabe zegoen orain arte).

Egile-bikote egokia biltzea izan da, zalantza barik, arrakastaren giltzarri nagusietako bat, eta, bien arteko elkarlanaren ondorioz, bermeotar arruntek eta hizkuntzalari nahiz historialari adituek denek aurkituko dute zer ikasi liburu honetan.

GIDOR BILBAO
EHUko irakaslea eta
euskaltzain urgazlea

EGILEAK ETA LANA

Toponimiako lan honetan, nahiko zehatz bereizten dira Hizkuntza arloko gaiak, alde batetik, eta Geografia eta Historia arlokoak, bestetik.

Leku-izenen ahozko erabilera biltzerakoan eginiko grabazioak eta euren transkribaketa, fitxetan ageri diren ohar linguistikoak eta toponimoen inguruan egindako azterketa linguistikoak (gertaerak, soinuak, normalizatzeko irizpideak eta mota honetako bestelako lanak) Iruñe Allika Azpeitiak eginikoak dira.

Lanean ageri diren ohar geografikoak (leku-izenen kokapena, mapak, e.a.) eta historikoak (fitxetan azaltzen diren oharrek, Bermeoko lurraldearen Historia, e.a.), ordea, Bitor Uriarte Anasagastik eginikoak dira.

Eskerrak

Toponimia lan hau aurrera eramaten lagundu diguten guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu, aldeztatik barkamena eskatuta baten bat aipatu gabe gelditzen bazaigu.

Lehenik, eskerrak, toponimoen berri eman diguten herritarrei, gehienak baserriarrek edo baserri ingurukoak, batzuk dagoeneko ez daude gure artean eta guztien laguntzari esker batu ahal izan ditugu leku-izenak bizirik, eurek ezagutu eta erabiltzen dituzten moduan. Hirigunean berri-emaileak aurkitzeko orduan, eskergabekoa izan da Rosa Mari Urrutiak eskaini eta eman digun laguntza.

Bestetik eskerrak eman J.L Ormaetxea *Txipiri* eta Ander Rosi, euren laguntza ezin bestekoa izan dugulako lana hasteko lehenengo pausoetan, hau da, lanaren nondik norakoa azaldu digutelako.

Ezin ahaztu artxiboetako langileak, Bermeoko Udal Artxibokoak, Gernikako Jabe-ko Erregistrokoak, Bizkaiko Foru Aldundikoak, Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziarrekoak, Bizkaiko Elizaren Histori Arkibukoak, Valladolideko Errege Kantzelaritzakoak, eta Madrilgo Artxibo Nazionalekoak agiriak, planoak, mapak eskuratzen eta kasu batzuetan ulertzen ere lagundu digutelako.

Beste era batera, eskertu nahi dugu Manu Muñoa beti gogotsu azaldu delako bere ohar eta aholkuekin. Baita Benito Ibarrolaza, Aingeru Astui eta Kontxi Gabantxo ere, guran erakutsi duten konfiantzagatik. Beraiekin batera, udaleko jarraipen batzordeko ki-deak, batez ere Maite Alvarez, izan duten pazientziagatik.

Bere kolaborazioagatik, geologia arloan, eskerrak, Francisco J. Gorriñori. Eta Javier Valenciari landaretza arloan, eta Begoña Martinezi XI. mendeko latinezko testuetan, eman diguten laguntzagatik.

Eskerrak Gidor Bilbaori eta Aitor Iglesiasi beraien aholku eta oharrengatik, baita Fernando Aranberriri ere izenen normalkuntzan eman dizkigun aholkuengatik. Ahaztu gabe, Aitor Ormazari, informatikako zalantzak argitzen eta oztopoak gaintzen lagundu digun lagunari.

Eta amaitzeko lagun eta etxekoei euren pazientziagatik, eurak izan direlako gehien sofitu izan dutenak lanak eragin dizkigun tentsioak, egonezinak, haserrealdiak, nerbioak...

Guztioi eskerrak, guztion artean gure aurrekoek utzi zigutena, gure atxixte-amumek, aitxe-amek gorde dutena, gure hurrengoek izan dezaten, batzeko aukera eman diguzuelako.

TOPONIMIAZ

Lehenago erliebea zen, euskarria, paisaia naturala, fisikoa, milioika urte duena. Noizbait, geografia honetan gizakia ezarri da eta paisaia bere esanetara ekartzen ahalegindu da. Bere bizitegiak, bideak, eraiki ditu, baliabide naturalak ustiatu ditu, paisaia eraldatu du azken batean. Eta hortxe dago emaitza, begien aurrean ikus dezakeguna. Bertan islatzen dira herrialdearen historiako hainbat xehetasun. Hauek ez dira mugatzen, jakina, iraganeko eraikin zaharretara. Hor daude, esate baterako, berezko basoen aztarnak, gizakiak eraturako luraren antolamendua eta lursailen itxurak... Eta gure gaira etorritz, herrialdeko toki bakoitzari gizakiak ipinitako izenak, toponimoak. Izen horien atzean gizakia dago; gune geografikoaren gizarteratzea suposatzen du toponimoak, proiektu sozial bat, lurraldearekiko itxaropenak, aukerak. Batek daki leku-izen askok zein sekretu gordeko ote duen bere baitan, zein gertakari adierazi nahian jarri zitzaion izena toki bati. Bermeo aldeari dagokionez, kasu batzuetan, gehienetan esango genuke, izenok oso antzina-koak dira, ertaroko garaietan sortuak, agian, beste batzuk modernoagoak. Edozelan ere esan daiteke leku-izen bakoitzak, zelan edo hala, bera sortua izan zen garaiko gora behe-arak adierazten dituela. Urteetan zehar bermeotarrek bizi, sentitu, gozatu, erabili izan dituzten aspekturen bat edo beste adierazten dute.

Hortaz, esan daiteke, bi paisaia mota daudela: bata fisikoa, gizakiaren eragin eta guzti, aurrean ikus dezakeguna; eta beste bat, toki bakoitzaren izenak kontutan izanik, sentitu, ulertu, eta gure herriarekin, nolabait, lot dezakeguna. Badago Bernardo Atxagaren *Obabakoak* eleberrian pasarte bat, oso egoki markatzen duena paisaiaren kutsu afektibo hau: “ (...) *Zeren jende asko hiltzen baita gutxienez bi paisaia mota daudela jakin gabe: norberarekin harremanik ez duena bata, ikusgai hutsa eta, edozein pintura bezala, soilik asoziazioz edo irudimenez guregana dezakeguna. Paisaia afektiboa bestea, norberaren bizitzarekin endredatua dagoena; paisaia bat non buruak —iragan egunak bertan gordeta daudelako— begiak baino askotzaz gehiago ikusten duen. Eta aski litzateke idazleek erabili eta marraztu dituzten paisaiak aztertzea berezitasun horretaz ohartzeko. Ikustea Stevenson-ek —bere irla ospetsuaren mapa egin zuenean— soilik izenak jarri ahal izan zituzten, zein izen zeukan irlaren puntu bakoitzak; nola aitzitik, Faulkner-ek istorio edo pasadizoen bitartez (...) markatu zituen Yoknapatawpha konterriaren mapako xehetasunak. Zail da nork bere jaioterria paisaia bezala ikus dezan. Areago ikusten dugu istorioz osatutako sare bat bezala, edo —beste modura esanda— gure maitasun edo gorrotoen gertaleku bezala. Eta izenak ere istorioak hobeki gogoratzeko hartzen ditugu aintzat. Premia hori ez bagenu, katastroarako geldituko lirakeke, edo kanpotarrentzat”.*

Bermeoko eskualdean tokiei deitzeko erabili eta erabiltzen diren leku-izenak bilduta eta kokatuta izateak badu garrantzirik herriko ondare kulturalaren aldetik. Gehiago bizimoldeak aldatuz doazen garai honetan, baserriko eta ohiko arrantzako bizimoduak aldatzen edota galtzen doazela sumatzen ditugun egunotan. Toponimoak garai desberdinetako biziera sozialen lekuko dira. Industrializazioak, hiriarren hazkundera, errepede berriek, bertirako galarazi dituzten iraganeko bizimoduek islatzen dituzte askotan: basoen ustiakuntza kolektiboa, burdinolak, elizetarako andabideak eta ohiko galtzadak, zubi zaharrak, kaletarren solo-guneak. Hiri barnean ere, kaleen izenetan, XIX. mendetik aurrera, aldaketa ugari izan dira: lehenagoko ohiko izenak, lanbideenak, esate baterako, pertsonaia baten edo bestearen izenagatik aldatu izan dira, askotan kutsu politikodun pertsonaien izenagatik. Azken joera hau ere, herrialdeko historiaren adierazpena da eta bere marka jartzten du toponimian.